

Aipuak nola egin

Gure lanean bertzeren informaziorik erabili eta aipatzen dugunean, beti erran behar dugu iturria zein izan den. Informazioa gure hitzez **laburtu**, iruzkindu, **parafraseatu** daiteke, hura aipatu, edo bertze norbaiten dokumentuaren **hitzez hitzeko testuaren** zati bat txertatu:

- Berrogei hitz arteko **hitzez hitzeko zati labur bat** hartzen badugu, kakotx artean txertatuko dugu gure testuaren barruan:

Enpresari buruzko ikerketak eskasak zirela aipatzen zuen jada Galán Zazo-k (1999, 219. or.): "La unidad básica del proceso de asignación de los recursos en una economía de mercado, la empresa, ha permanecido como una figura misteriosa".

- Berrogei hitz baino gehiagoko **hitzez hitzeko zati luze bat** sartu nahi badugu, testua aparteko paragrafo batean txertatuko dugu, kakotxik gabe eta koskatzearekin:

Europar integratzeak euskal ekonomian izan zuen eraginaren gainean, badaude aski iragarleak diren analisiak, gaiarekin aurrera segitzeko modukoak:

...si consideramos conjuntamente la evolución de los datos e indicadores representativos de las dimensiones que hemos diferenciado para estudiar el impacto de la integración europea en la economía de la CAV, deberíamos concluir que el proceso de integración presenta un balance positivo, aunque es muy discutible que haya influido en las transformaciones estructurales de la economía vasca más que otros fenómenos de alcance mundial como la terciarización, la globalización de las estrategias empresariales, la búsqueda de nuevos mercados para diversificar clientes y aprovechar las economías de escala, la evolución de los tipos de cambio, la especialización funcional de los espacios productivos, la financiarización de las economías o el incremento de la interdependencia económica y financiera a escala mundial. (Bilbao Ubillos, 2013, 141-142. or.).

- Hitzez hitzeko pasarte baten barruan, **testuaren zatiren bat ez badugu ematen**, falta den testuaren zatiaren ordean eten-puntuak jarri behar dira, kortxeteen artean: "[...]".

Egoera gero eta kezkarriago bilakatzen ari da: "Según el índice EMBI, [...], se observa cómo América Latina está pagando ahora más de 700 puntos básicos, lo que supone un aumento significativo respecto a la situación anterior" (Iranzo Martín, 2013, 231. or.).

Testuko **aipamenak egilea** nor den eta **dokumentua zer urtetakoa den** erran behar du. Testuko aipamenek lanaren bukaeran aurkeztuko den erreferentzia guztien zerrendara, *bibliografiara*, bidaliko gaituzte baina zenbakirik edo hurrenez hurren zenbatutako oharririk gabe (ez testu nagusiaren gorputzean, ez eta orri-oinean ere). Horrela, erabilitako eta aipatutako informazioa eta datuak gure lanaren *gorputz nagusiaren barruan* aipatuko dira eta ez da irakurketa moztu behar izanen oin-oharrak, etab. irakurtzeko.

Zenbait gomendio eta aholku orokor

- **Aipuan**, egilearen deitura eta aipatutako argitalpenaren urtea emanen dira, biak parentesi artean:

Sintesi nuklear honen bilakaera aspalditik ezaguna da (Fowler, 1984) nahiz eta badauden oraindik ere argitzeke dauden zenbait elementu.

- **Egilearen izena testuan bertan badator**, aski da urtea parentesi artean jartzearekin:

Kontuan hartzekoa da Bubner-ek (1975) bere itsasontziaren teoria idatzi zuela...

- **Bertze hainbat datu ere gaineratu daitezke: orrialdea, kapitulua, etab.**, betiere koma bidez berezita. Hitzez hitzeko aipamena egiten den guztietan egin

Clausiu formulazio berri bat egitera eramaten duenak: "Konpentsaziorik gabe, ezinezkoa da beroa gorputz hotz batetik gorputz bero batera pasatzea" (1854, 141. or.)

behar da.

- **Bost egile baino gehiago baldin badaude**, formula hau erabiltzen da: "et al." ("eta bertze batzuk" latinez):

"The speed at which data are transmitted is an important characteristic" (Keen et al., 2000, 65-75. or.).

- Aipatu den dokumentuak **bi, hiru, lau edo bost egile baditu**, lehen aldiz koma bidez berezita aipatuko dira, "eta" juntagailua erabiliz (edo "&" erabiliz, ingelesez idazten bada). Gero, lan berean, aipu gehiago badago, lehen egilean lehen deitura erabiliko da eta ondoren "et al." formula.

Bertze lanen batean ikusmolde berdina baieztatzen da (Alonso, Gardeisen, Piquès, eta Rovira, 2011). [...] Nabarmena da hau Alonso et al.-en lanean (2011).

- **Erreferentzia bat baino gehiago aipatzen badira**, denak parentesi berean jarriko dira, puntu eta koma bidez berezita:

80. hamarkadan egindako azterlan ezberdinek argi eta garbi frogatu zuten hau (Hlavac, 1985; Fearon, 1987).

- **Egile beraren hainbat erreferentzia badira**, urteak koma bidez bereziko dira:

Bertze ekonomialari batek aski frogatua du (Anderson, 1966, 1972, 1974).

- **Bi egilek edo gehiagok deitura bera daukatenean**, izenaren lehen letra ere sartuko da:

(G. Fischer, 1990) [...] (A. Fischer, 1995).

- **Urte berean argitaratu diren egile beraren hainbat lan aipatzen badira**, urteari letra bat gaineratuko zaio (a, b, d, eta abar). [baita lanaren bukaeran aurkezten den erreferentzia guztien zerrendan edo *bibliografian* ere].

(Nobile, 1992a) [...] (Nobile, 1992b).

- **Obra anonimoen edo identifikatu ezin izan diren egileen obren kasuan**, izenburua erabiliko da, letra etzanez, eta urtea. Izenburua oso luzea bada, aski da lehen hitzak erabiltzearekin:

(*World Directory of Mathematicians*, 1992).
(*La vida de Lazarillo de Tormes*, 1914).

- **Bertze lan baten erreferentziaren bidez ezagutzen den zerbait aipatu behar bada**, horrela egin daiteke:

Brown-ek (1967), Smith-ek aipatua (1970, 27. or.), aurkitu zuen...
Honakoa aurkitu zuen (Brown, 1967, Smith-ek aipatua, 1970, 27. or.):
[Bibliografian bai Brown zein Smith-en lanen erreferentziak datoz].

Erreferentziak nola idatzi: zenbait gomendio eta aholku orokor

1. Estilo arau guztiak betetzea baino are garrantzikoagoa da lan baten erreferentzia guztiak elkarren artean **sendoak eta homogeneous** izatea idazketari dagokionez (eta irakasle edo editoreren batek arau zehatzak ematen badizkizu, horiek errespetatu beharko dituzu, noski).
2. Lanaren bukaerako erreferentziak **alfabetikoki ordenatuko** dira, egilearen lehen deituraren arabera, edo izenburuaren arabera, egilea ezin izan bada identifikatu.
3. **Lehen egilea berbera bada, baina bigarrena ezberdina**, erreferentziak bigarren egileen deiturak kontuan izanda ordenatuko dira. **Egile bera edo berberak hainbat aldiz agertzen badira**, aipamena argitalpen-urtearen arabera ordenatuko da (zaharretik hasi eta berrienera). **Egile batek hainbat lan argitaratu baditu urte berean**, letra txikia erabiliko da (a, b, d) argitalpen urtearen ondoren, bata bertzearengandik bereizteko.
4. Erreferentzia bakoitzaren bigarren lerrotik aurrera **bost espaziotako koska bat** utzi behar da.
5. Dokumentu batek **bertsio digitala** baldin badauka URLa emanen da, aurretik hau idatziz: “Hemendik eskuratua:”, edo “Retrieved from:”, ingelesez ari bagara. Ezagutzen bada, URLa ordezkatzeko duen DOI delakoa erabiliko da.
6. **Interneten eskuragarri dauden baliabideetarako**, garrantzitsua da dokumentua kontsultatzeko URLa ematea. Forma hau hartuko du: “Hemendik eskuratua: [URL]”. Eta ingelesez izanez gero, honako hau: “Retrieved from: [URL]”.
7. Dokumentuak **zazpi egiletara arte** badauzka, denak zerrendatuko dira erreferentziaren lehen elementu gisa. **Zazpi baino gehiago** badira, lehen seiak idatziko dira, ondoren eten-puntuak eta bukatzeko azken egilea idatziko da.
8. **Egileak koma bidez bereziko dira**, eta azkena “eta” juntagailuarekin, euskaraz ari bagara, eta “&” ingelesez ari bagara.
9. Egileen **ponte izenak** soilik inizialak jarritz adieraziko dira.
10. Dokumentuak **ez badauka egilerik**, ez eta **erakunde sortzailerik** ere, erreferentziaren lehen elementua **izenburua** izanen da.
11. Egile berarenak diren eta **urte berean** argitaratu diren dokumentuak bereizteko, aipuetan bezala, erreferentzietan ere urtearen ondoren letra txikia erabiliko dugu (1992a, 1992b, 1992d, etab.).
12. Erreferentzia idazteko datuak **jatorrizko dokumentutik** hartuko dira. Egoki jotzen badugu, kortxete artean lehen argitaraldiaren datuak jarriko ditugu, edo beharrezkoa iruditzen zaigun bertze edozein informazio.
13. Argitaratzeko onartuta dauden baino oraindik argitaratu ez diren artikuluen erreferentziarako, parentesi artean idatzi behar da “prentsan” euskaraz, edo “in press” ingelesez ari bagara.
14. Izenburua idazteko, lanaren hizkuntzaren arabera, hizkuntza horretan **letra larriak** erabiltzeko arauari erreparatuko zaio.

Liburuak eta antzekoak

- Diccionario de psicología individual.* (1999). Madril: Síntesis.
- Gardner, H. (1973). *Las artes y el desarrollo humano.* New York: Wiley.
- Moore, M. H., Estrich, S., McGillis, D. eta Spelman, W. (1984). *Delincuentes peligrosos: el blanco escurridizo de la justicia.* Cambridge: Harvard University Press.
- Strunk, W. eta Blanco, E. B. (1979). *Los elementos del estilo* (3. arg.). New York: Macmillan.
- Fernández Berrocal, P., eta Melero Zabal, M. A. (koord.) (1995). *La interacción social en contextos educativos.* Madril: Siglo XXI.

Liburu elektronikoak eta antzeko online argitalpenak

- Lau, J. (2004). *Directrices internacionales para la alfabetización informativa* [bertsio elektronikoa]. Mexiko: Universidad Veracruzana. Hemendik eskuratua: <http://bivir.uacj.mx/dhi/DoctosNacioInter/Directrices.pdf>
- Rudd, R.E. (2010). *The health literacy environment activity packet: First impressions & walking interview. Eliminating barriers – Increasing Access. On-line tools. Health Literacy Studies.* Hemendik eskuratua: <http://www.hsph.harvard.edu/healthliteracy/files/activitypacket.pdf>
- Swanwick, T. (arg.) (2010). *Understanding medical education: evidence, theory and practice.* [Wiley Online Library Books-en bertsio elektronikoa]. doi: 10.1002/9781444320282

Liburuen kapituluak eta antzekoak

- Vygotsky, S. (1991). Génesis de las funciones mentales más altas. P. Light, S.Sheldon, eta M. Woodhead (arg.), *Aprendiendo a pensar* (32-41. or.). Londres: Routledge.
- Sarrazin, P. eta Guillet, E. (2001). “Mais pourquoi ne se réinscrivent-ils plus!” Variables et processus de l’abandon sportif. In F. Cury, eta P. Sarrazin (arg.), *Théories de la motivation et pratiques sportives: état des recherches* (223-254. or.). Paris: Presses Universitaires de France.

Liburu digitalen eta antzeko online argitalpenen kapituluak

- Wojtkowski, P. A. (2008). Temporal Economics. *Agroecological Economics: Sustainability and Biodiversity* (97-114. or.). San Diego: Academic Press. doi: 10.1016/B978-012374117-2.50008-X
- Bendixen, G. E. (1999). Radio navigation. *Wiley Encyclopedia of Electrical and Electronics Engineering.* Hoboken (New Jersey): Wiley Interscience. Hemendik eskuratua: <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1002/047134608X.W1134/full>
- Español González, F. 2000. Julio Rey Pastor y la matemática de los imaginarios. In *Investigación humanística y científica en La Rioja: homenaje a Julio Luis Fernández Sevilla y Mayela Balmaseda* (331-340. or.). Logroño: Instituto de Estudios Riojanos. Hemendik eskuratua: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=570732>

Argitaratu gabeko lan akademikoak

Zer erakunde akademikotan aurkezten den eta zer motako dokumentu argitaragabea den idatzi behar da.

Ardevol González, J. F. (1990). *Flora y vegetación del municipio de Icod de los Vinos*. (Argitaratu gabeko doktorego tesia). Landare Biologiako Saila. La Lagunako Unibertsitatea.

Almohalla Gallego, F. (1986). *El Señorío de Osuna en Archidona: 1831-1862*. (Argitaratu gabeko lizentziaturaren oroitidazkia). Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala. Ceuta.

Txosten teknikoak

Azterlan espezializatuak dira, argitaratu gabeak eta erakundeentzat zein enpresentzat prestatuak. Ingelesez *reports* deitu ohi dira. Beren erreferentzia, liburuena bezala egiten da, aipatuz, baldin badago, zer bildumatakoa den eta txostenaren kodea (identifikazio zenbakia).

Birney, A. J. eta Pasillo, M. Del M. (1981). *Identificación temprana de niños con dificultades para escribir una lengua* (81-502 zenbakidun txostena). Washington: National Education Association.

Vila Pena, M., Lardiez Holgado, P. eta Lentijo Lentijo, J. C. (2002). *Red de estaciones automáticas de vigilancia radiológica ambiental (REA) del CSN: operación y resultados años 2000 y 2001* (Informes técnicos, 8.). Madril: Consejo de Seguridad Nuclear.

Arau teknikoak

Normalizazio entitate edo erakundeek egindako dokumentuak dira. Beren kodearen bidez identifikatzen dira:

Asociación Española de Normalización. (2010). *UNE 71599-1: Gestión de la continuidad del negocio. Parte 1: Código de práctica*. Madril: AENOR.

International Organization for Standardization. (2012). *ISO 22313: Societal security - Business continuity management systems - Guidance*.

Liburu-azterketak aldizkarietan (*Book reviews*)

Liburu-azterketetan, aldizkarian agertutako argitalpenari buruzko datuak hartu behar dira, eta aztertutako liburuaren izenburua eta gilea:

Nagorski, A. (2013). The totalitarian temptation [*The devil in history: communism, fascism and some lessons of the 20th century* liburuaren azterketa, V. Tismaneanuren bidez]. *Foreign Affairs*, 92, 172-176.

Power, M. (2012). A History of Heterodox Economics [*A History of Heterodox Economics* liburuaren azterketa, F. S. Lee]. *On The Horizon*, 20(3), 253- 259. doi: 10.1108/1074812121125684

Inprimatutako aldizkarietako artikulua

- Barberis, N. C. (2013). Thirty years of prospect theory in economics: A review and assessment. *Journal of Economic Perspectives*, 27(1), 173-196.
- Evans, A. J. (2012). Pedagogical synergies between austrian economics and the case method. *Journal of Private Enterprise*, 28(1), 91-103.
- Mees, L. (1992). La viticultura en Navarra y La Rioja: Economía, Sociedad y Política de Intereses (1850-1940). *Gerónimo de Uztariz*, (6-7), 147-181.

Onlineko aldizkari digitaletako artikulua

Kontuan hartu behar da aldizkari zientifikoen parte handi batek dauzkala, aldi berean, bertsio inprimatua eta bertsio digitala (CDan edo online). Onlineko bertsio digitalaren datuak badauzkagu (doi edo URL), komenigarria litzateke horiek jartzea (artikulua kopia inprimatuan edo CDan irakurri badugu ere), irakurleari eroso izanen zaiolako, horrela, artikulua aurkitzea:

- Cerling, T. E., Manthi, F. K., Mbua, E. N., Leakey, L. N., Leakey, M. G., Leakey, R. E., ... Wood, B. A. (2013). Stable isotope-based diet reconstructions of Turkana Basin hominins. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, (24), 1-6. doi: 10.1073/pnas.1222568110
- Lana Berasain, J. M. (2007). El poder de compra de jornaleros y criados. Salarios reales y mercados de trabajo en la Navarra rural, 1781-1936. *Investigaciones de Historia Económica*, (7), 37-68. Hemendik eskuratua: http://www.aehe.net/publicaciones/ihe/archivos/ihe7/AR_Lana_Jose-Miguel_N7_Pp37-68.pdf
- Clément, A. (2006). L'excès et les contraintes alimentaires vus à travers la pensée économique. *Food and History*, 4(2006), 187-205. Hemendik eskuratua: <http://brepols.metapress.com/content/q23311q20687tt06/fulltext.pdf>
- Macías Hernández A. M. (2007). Expansión ultramarina y economía vitivinícola. El ejemplo de Canarias (1500-1550). *Investigaciones de Historia Económica*, 3(8), 13-44. doi: 10.1016/S1698-6989(07)70200-X

Kongresuetako akta osoak

Erreferentziaren lehen elementua editorea, bilduma-egilea, etab. da, eta halakorik ez badago, edo ez bada agertzen, argitalpenaren izenburua izanen da:

- Santos Yanguas, J. (arg.) (1994). *La Rioja, el vino y el Camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino (Labastida, Rioja Alavesa, 28 y 29 de septiembre de 1994)*. Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- La internacionalización de la economía navarra: actas del segundo Congreso de Economía de Navarra*. (1998). Iruñea: Nafarroako Gobernua.

Biltzarretako komunikazioak

Hauen erreferentzia liburuen ekarpenena edo kapituluena bezala egiten da, latineko “In” preposizioa erabiltuta obra osoa adierazteko:

Huetz de Lempes, A. (1994). Cien años clave en la vitivinicultura de la Rioja Alavesa 1850-1960. In J. Santos Yanguas (arg.), *La Rioja, el vino y el Camino de Santiago. Actas del I Congreso Internacional de la Historia y Cultura de la Vid y el Vino (Labastida, Rioja Alavesa, 28 y 29 de septiembre de 1994)* (105-115. or.). Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.

Mees, L. (2011). Proceeding papers or journal articles? A comparative analysis on computer science versus economics, business and management. In *2011 2nd International Conference on Artificial Intelligence, Management Science and Electronic Commerce, AIMSEC 2011 – Proceedings* (1319-1322).

Kumar, R. eta Nori, A. V. (2013). The economics of static analysis tools. In *2013 9th Joint Meeting of the European Software Engineering Conference and the ACM SIGSOFT Symposium on the Foundations of Software Engineering, ESEC/FSE 2013* (707-710. or.).
doi:10.1145/2491411.2494574

Webgune osoak

Erreferentziaren lehen elementua eta gero urtea dator, eta ez badakigu, eskuratzeko-eguna paratuko dugu. Aldatzen ez den egun finkoa duen webgune bat baldin bada, urtea egun finko horretakoa izanen da, eta ez da eskuratzeko-egunik jarriko:

Instituto Nacional de Estadística. (2009). *Instituto Nacional de Estadística*. Madril: INE. Hemendik eskuratu: <http://www.ine.es/>

American Psychological Association. (2012). *APA style blog*. Hemendik eskuratu: <http://blog.apastyle.org/apastyle/>

RePEc: Research Papers in Economics. (2013). Hemendik eskuratu: <http://repec.org/>

Manzaneque Casero, J. A. (2009). *Glosario de términos artísticos*. Hemendik eskuratu: http://almez.pntic.mec.es/~jmac0005/Bach_Arte/Teoria/Html/teori_a4.htm

Webguneen orriak edo parteak

Hiztegi edo entziklopedia digital baten sarreren, webgune bateko orrien, datu-baseen erregistroen eta abarren erreferentzia egiteko, zer webguneren mende dauden aipatuko da:

Economía. (2012). In *Wikipedia*. Hemendik eskuratu: <http://es.wikipedia.org/wiki/Econom%C3%ADa>

O'Connell, John. (2013). Bretton Woods Conference. In *The Blackwell Encyclopedia of Management*. Hemendik eskuratu: http://www.blackwellreference.com/subscriber/tocnode.html?id=g9780631233176_chunk_g97806312349375_ss1-56

Torrent i Sellens, J. eta Vilaseca i Requena, J. (2002). Midiendo la economía digital: una aproximación metodológica a un indicador de demanda del sector TIC para EE.UU. *Revista de Economía Mundial*, 6, 159-173. Hemendik eskuratu: <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=309529>

Ekarpinak webguneetan eta antzekoetan

Berezko garrantzia daukaten ekarpenez ari gara, edo egile bereizgarri batenak direnak: blog bateko sarrera, erakunde baten webguneko sarrerak edo artikulua, etab.:

Bote, V. (2013). Pensiones y reparto intergeneracional de la crisis. In *Economy Weblog*. Hemendik eskuratua: <http://economy.blogs.ie.edu/archives/2013/09/pensiones-y-reparto-intergeneracional-de-la-crisis.php>

Krugman, Paul. (2013). Mal momento para lo convencional. In *El Blog de Paul Krugman*. Hemendik eskuratua: <http://blogs.elpais.com/paul-krugman/2013/09/mal-momento-para-lo-convencional.html>

Legeria

Lege, dekretu, udal ordenantza, ministerioaren agindu, ebazpen edo edozein arauren erreferentzia idatzi behar dugunean, lehen elementua egile korporatiboa izanen da, honekin batera erranez zer jurisdikzio geografikotan den aplikagarria: herrialde, eskualde edo udal batean, etab.:

Britainia Handia. Barne Ministerioa. (1994). *Política de las prisiones para Inglaterra y el País de Gales*. Londres: HMSO.

Espainia. Parlamentua. (2006). *Ley del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas* (Ley 35/2006). Madril: BOE.

Espainia. Gobernua. (2013). *Proyecto de Ley de cajas de ahorros y fundaciones bancarias*. (Exp. 121/000049). Hemendik eskuratua: http://www.congreso.es/public_oficiales/L10/CONG/BOCG/A/BOCG-10-A-49-1.pdf

Iruñea. Udala. (2007). *Ordenanza reguladora de las ayudas municipales a la rehabilitación de edificios*. Hemendik eskuratua: <http://www.pamplona.es/verdocumento/verdocumento.aspx?iddoc=239259>

Legeriaren aipua orri-oin ohar bat erabiliz ere egien daiteke, araudiaren datuak aipatuz, edo legeri erreferentziak asko eta errepikakorrak badira, testu barruan kode baten bitartez aipatu daitezke (L1, L2...) eta datu horiek guztiak, osatuak, bibliografiatik kanpo legokeen dokumentu gehigarri batean bildu.

Working Papers

Lanerako paperak edo working papers-ak dira, gai bati buruzko ideiak bertze ikertzaile batzuekin partekatzeko erabiltzen direnak, edo bertze ikertzaile batzuek berrikus ditzaten helarazten zaizkienak, lan bat hitzaldi batera edo aldizkari zientifiko batera bidali baino lehen. Garrantzitsua da bere zenbaketa aipatzea, zer organismotan sortu den eta lana aurkitzea errazteko duen bertze edozein datu ematea:

Pincheira, P. (2013). *Interventions and inflation expectations in an inflation targeting economy* (BIS Working Papers 427). Hemendik eskuratua: <http://www.bis.org/publ/work427.pdf>

Meyers, K. (2013). *Issue brief: Racial and ethnic health disparities* (Report No. ACRL223312). Hemendik eskuratua: http://www.kpihp.org/wp-content/uploads/2012/12/Meyers-IHP-IB_Disparities_highlights-042707.pdf

Ikus-entzunezkoak

Entzutezko grabazioez, bideoez, filmez, irrati- edo telebista-emanaldiez eta abarrez ari gara eta hemen formatua edo euskarria identifikatu behar da: DVD, VHS, filma, CDko soinu-erregistroa, etab.:

López-Barajas, E. (2008). *Apreniendo a investigar*, [DVD]. Madril: Universidad Nacional de Educación a Distancia.

Ferguson, C. (zuzendaria / gidoigilea). (2010). *Inside Job*, [DVD]. New York: Sony Pictures Classics.

Beltrán Flores, L. (1981). *El estudio de la economía en España*, [Soinu erregistroa kasetean]. Madril: Universidad Complutense de Madrid.

Egunkariko artikulua

Bollar, S. B. (1944ko uztailaren 2a). Ante la conferencia monetaria. *La Vanguardia Española*, 14. or.

El falso final de la guerra de Afganistán (2015ko urtarrilaren 2a). *El País*, 2-3. or.

Egunkariko artikulua online

Krugman, P. (2015ko otsailaren 7a). El juego de la gallina. *El País*. Hemendik eskuratua:

http://economia.elpais.com/economia/2015/02/06/actualidad/1423214232_319306.html

Valenciano, E. eta Álvarez, A. (2015ko otsailaren 11a). Violencia machista: lo que las cifras esconden. *eldiario.es*. Hemendik eskuratua:

http://www.eldiario.es/zonacritica/cifras-esconden_6_355624451.html

Foroak, blogak, txioak, bideoak, mezu elektronikoak eta web sozialeko gainerako dokumentuak

Ohar garrantzitsu batzuk:

- kortxeteen artean jartzen da dokumentu mota;
- egilearen izena erabilgarri ez badago, izengoitia jartzen da;
- datak eguna, hilabetea eta urtea jaso behar ditu;
- izenburu espliziturik ez badago, testuaren hasierako esaldi bat hartzen da, edo txioen kasuan, testu osoa bera.
- pentsatu beharko genuke aipatzen dugun dokumentuak garrantzi nahikoa ote duen eta gainontzeko bibliografiarekin bateratzea egokia ote den; agian nahikoa da eta aipamen txiki batekin egin eta orri-oinean URLa jartzearekin.

Josu. (2014ko azaroaren 10a). El plagio de Antonio Romero: juzguen ustedes mismos. [Blog batean argitaratua]. Hemendik eskuratua: <http://www.malaprensa.com/2014/11/el-plagio-de-antonio-romero-juzguen.html>

García Alonso, Marta. (2014ko azaroaren 10a). Ciertamente, lo que cuenta es tremendo. In Josu. *El plagio de Antonio Romero: juzguen ustedes mismos*. [Blog batean argitaratutakoari egindako iruzkina]. Hemendik eskuratua: http://www.malaprensa.com/2014/11/el-plagio-de-antonio-romero-juzguen.html?showComment=1415617235776#c90294489215181467_06

NUP. (2014ko abuztuaren 28a). UPNA-NUP. Unibertsitateko boluntariotza. [Bideo-artxiboa]. Hemendik eskuratua: <http://youtu.be/oFcoih0sjJI>

Munduko Medikuak Nafarroa (2015eko otsailaren 11a). Conseguir genéricos 100 veces más baratos, por eso recurrimos patente de #sofosbuvir <http://ow.ly/IRXfz> vía @eldiarioes @ATTACNavarra [Txioa]. Hemendik eskuratua: https://twitter.com/MdM_Navarra/status/565493957946531840

Marquina, J. (2014). El archivo y el archivero en el mundo de los medios sociales. [Aurkezpena SlideShare-n]. Hemendik berreskuratua: <http://www.slideshare.net/JulianMarquina/el-archivo-y-el-archivero-en-el-mundo-de-los-medios-sociales>

Mezu elektronikoa

Argitaratuta ez dagoenez, eta, hortaz, irakurlearentzat eskuragarri ez dagoenez, komunikazio pertsonaltzat hartzen da, hitzezko komunikazio baten baliokidetzat. Testuan edo orri-oinan aipatzen da (orri-oinan badago, ez dauka parentesirik), eta ez da bibliografian edo erreferentzien zerrendan jasotzen. Egilearen abizena eta haren izenaren inisiala aipatzen da (modu zuzenean), adibidez:

(A. Argenta [Hitzezko komunikazioa]. 2015eko urtarrilaren 14a)

Webean erabilgarri dagoen fitxategi batean jasota dagoen mezu elektronikoa bat bada, orrialdetzat edo webgune bateko zatitzat hartzen da

TRDC liburutegia. (2014). Citas y referencias: recomendaciones y aspectos básicos del estilo APA. *Archivos de IWETEL*. Hemendik eskuratua: <https://listserv.rediris.es/cgi-bin/wa?A2=IWETEL;c9204667.1410A>

Kredituak

Gidaliburu honen aipua eta erreferentzia egiteko:

Aipua: (Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia. Erreferentzia Bulegoa, 2014)

Erreferentzia: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia. Erreferentzia Bulegoa. (2014). *Aipuak eta erreferentziak egiteko gida*, APA Style. Hemendik hartua <https://goo.gl/wfLkJR>

Gidaliburu hau **Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegiko Erreferentzia Bulegoak** idatzi du, honako jarraibideei jarraituz:

American Psychological Association. (2010). *Manual de publicaciones de la American Psychological Association: Versión abreviada* (2. arg.). Mexico D. F.: El Manual Moderno.



Nafarroako Unibertsitate Publikoko Liburutegia. Erreferentzia Bulegoa

